



----- euskaldunon konparttsaren aldizkaria -----



# ARATUSTEAK

TOMAS DEUNA

BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI  
BERBALAGUNA  
KONTSEILUA



Txandan ez geneukan astirik ezta sagardo botilak zabaltzeko

# OI LASKORI K EZ BAI NA BAI LEGATZAK

Urtero egiten den bezala, abenduaren 21ean, Tomas deunaren eguna ospatu zen, ezaugarri berezi batekin, hegaztien gripea dela eta, aurten ez zegoen oilaskorik, baina hau ez zen arazoa izan jende mordoak hurbiltzeko eta giro onean eguna pasatzeko.

Konpartsakook birritan geratu ginen, eguerdiko 12etan eta arratsaldeko 6etan. Goizeko deialdiak ez zuen arrakasta handirik izan, baina joan ginen gutxiok laster paratu ginen poteatzen. Sagardoarekin batera lehenengo abestiak,

“adiskide bat bazen...”. Baina lehenengo txanpak gutxi iraun zuen, zeren eta gure txosnako txanda betetzera joan behar izan genuen.

Arratsaldeko ordu bietan sartu ginen txandan, ordu txarrenean. Jendez beteta zegoen eta ez geneukan astirik ezta sagardo botilak zabaltzeko, hau estresa hau!!!. Bi ordu gogorrez lan egin ostean, txanda bukatu zen eta bazkaltzera joan ginen. Jada ez zegoen txartelik indabak jateko, baina Esperantza frontoira joan ginen eta musu truk

bazkaldu genuen.

Bazkaldu ostean, berriro poteoari ekin genion, ohitura diren patxaranak hartzen. Somera gora, Somera behera eta berriro txosnara beste konpartsakideekin batzera. Honetan jende gehiago etorri zen, batzuk berandu baina seguru, geneukan abantaila ahalik eta lasterren hartu nahian. Sagardoa bukatu zen, baina edale profesionalak edozein gauza edaten dute, ura izan ezik. Hemendik aurrera, betiko kontua, oilaskorik ez, baina legatza asko.





# DOZENAKA MI NTZO BI LBOKO KALEETATI K



Jeitsiera hasteko prest

Urtarrilaren hasieran aratusteak prestatzen hasi ziren, konpartsakide bakoitzak egindakoa jakingo du: Ikerrek, Pittuk, Zeliak, Txominek, Peruk, Kanpik, Usuak, Fuenek, Itziarrek, Naiarak eta Aintzanek, egindako materiala: jantziak, ileordeak, pilotak, eskola, mintzo, atzingia, zuzenkia, eskudra, kartaboia eta arkatzak.

Denbora eta asteak aurrera doaz. Bi aste besterik ez aratusteak heltzeko. Gure

pentsemenduetan keka bat sortu zen: Mintzo panpina gomaespumaz egin behar dugu? Nola egingo dugu? Gure buruan dena ilun zegoen. Zeliak tunelaren amaieran argi txiki bat ikusten zuen, Aintzanek, Ikerrek eta Pittuk ez zuten argirik ikusten. Nire ahizpa Noraren laguntzarekin bidearen hasiera ikusten hasi ginen.

Aratusteen zapatua heldu zen. Goizeko 10: 00ak

ziren. Karroza montatu gabe geneukan, lanean hasteko garaia zen. Baina nondik hasi? Momentu horretan buruzagi asko zeuden eta langile gutxi. Konpartsakide batzuk urduri jartzen hasi ziren beste batzuk ez. Zeliak elioa, puxikak puzteko ekarri zuen. Hortik zurrumurruak: Honek zertarako balio du? Guk gure haizeaz puztu ditzakegu. Bai, bai, bai, 200 puxika gutxi gora behera, Hau Zorabio Hau!



Konpartsaide batzuk karroza montatzen hasi ziren beste batzuk puxikak elioaz puzten, korapiloak egiten ( Zelia eta Iker), eta soka ipintzen.

Bazkaltzeko ordua da. «Al Abordaje» tabernara bazkaltzera goaz. Hango kapitainak hitz egingo balu, gauza asko kontatuko luke. Pittu eta Iker, esate baterako. Eta noski bazkaltzeko Al Abordaje hanburgesa zegoen bai, Fuenek eta Peruk dastatu zuten. Zelako betekada hartu zuten.

Kanpi urduritzen hasia zen: Aurrera! Aurrera! denak desfilearen lekura, berehala jaitsi!. Konpartsaideok desfilearen hasierara jaisten hasi ginen. Bidetik zehar jendea mozorroturik ikusten genuen, beste mundu batean geundela zirudien. Bai, aratusteen munduan: deabruak, kandelak, iratxoak, erromatarrak, zaldunak,...

Bitartean arratsaldeko bostak ziren eta gu desfilea hasi gabe. Udaltzaingoak trafikoa zuzentzen zuen bitartean, aspertuta zegoenez, ea oiloak ginen galdetu zidan. Desfilea arratsaldeko seietan hasi ginen, gutxi gora behera. Desfiletik zehar konpartsakideak dantzan, nola ez garagardoa berehala amaitu zen eta. Baina haurrak zein goiz hasten diren alkohola edaten! Desfilearen hasieran ez zegoen jende askorik, baina gero Corte Inglesera heltzen hasi ginenean bat batean



Jeitsiera bukatu ostean jaia hasi zen alde zaharretik

hauxe bai jende piloak. Hemen jendearen artean zurrumurruak zabaltzen hasi ziren: hauek zertaz mozorrotu dira? Oiloaz, ez, ez, Batasunaren neskez,...

Gozokiak, pertsona bati baino gehiagori buruan mina egin zion. Gozokiak berehala amaitu egin ziren, konfetiak ez baina. Desfilea amaitu eta oraindino konfetiak gelditzen zen. Usua konfetiak amaitzeko prest zegoen. Azkenean konfetiak amaitzea lortu egin zuela uste dut. Bitartean, Arriagaren atzeko aldean: konpartsakide batzuk mozorroa kentzen,

beste batzuk hitzegiten, beste batzuk noraezean, beste batzuk musika dantzatzen. Antzokiaren barruan antzezlan bat zegoen: Hamlet, hain zuzen ere. Ba, badakizue zer gertatu zen? Arriagaren barrutik antzezlan zuzentzen zuen gizon bat atera zela. Zertarako? Peruri musikaren bolumena jaisteko esateko. Antzokiaren barruan Hamlet antzezlan entzun beharrean, gure musika entzuten zelako. Eta beste gauzatxo bat desfilea antolatzen zuen pertsona bat ere etorri zitzaigun



trabu eta Pirrikiren eskutik «Sonrisas y Lágrimas» filmeko abestiak entzun genituen

aurrera joan behar genuela esanez, karabana egiten ari baikin.

Gure antzezlanak amaitu genuen. Orain gure jaia hasten zen. Alde Zaharreko taberna batetik bestera bueltaka geuden. Ring! Ring! Ring! Afaltzeko ordua da. Bai, nora goaz? Metroa, Indautxura. Unamuno plazan bat batean; Galaxiar denboran geuden, Star Trek ikusi genuen eta berarekin argazki bat atera genuen. Metroaren barruan geudenean, Gorka (Koldotxuren anaia) eta Eider aho zabal zeuden. «Zein ondo pasatzen ari naizen, Lekitton horrelako mozorroak ez ditugu inoiz ikusi». Metroko bagoian gure konpartsakideak, euskal kankak abesten.

Jezartzeko ordua heldu zen, eta Kanpi noren erdian jesarri zen? Ezetz asmatu. Fuen eta Irantzuren (nire) erdian. Eta Eneko bitartean Barakaldoko neskarekin ligatu nahian, beno azkenean muxu bat ematea lortu zuen, edo zerbait gehiago. Batek daki.

Euskal kantuen kontzertua metroan utzi genuen eta orain, afaltzen geuden bitartean, «Sonrisas y Lágrimas» filmeko abestien antzezlanak hasi zen. Pirriki eta Astraburen eskutik. Bi bertsiok egin zituzten bata gaztelaniaz eta bestea ingeleraz. Karmele konpartsakidea afaltzera etorri zen. Entremeseak, entsalada, okela eta postrea. Gaueko 23:45ak ziren. Edariak eta

kafeen txanda zen: Ikerrek patxarana eskatu zuen, eta txupittoa atera zioten. Eiderrek eta biok baileys eskatu genuen baina ez ziguten txupitorik atera, edalontzi handian atera ziguten. Baina hau edaten noiz amaituko dugu? Kanpi eta Fuen beraien bi eskozezak itxoiten. Non daude? Eskoziara joan dute beraien bila? Azkenean edaria ekarri egin zieten. Eiderrek eta biok Kanpi eta Peruren laguntzaz baileys amaitu genuen.

Gaueko 24:00ak ziren. ZORIONAK USUA Zorionak beti! Zenbat urte, 24 urte.

El Dograsen (Peru) kontzertua ikusteko gutxi falta zitzaigun. Metroz, Alde Zaharrera abiatu ginen. Pako, Amagoia, Maddalen eta Norarekin hitzegiten egon ziren. Someratik, Bilbao la Viejara joan ziren. Hortik aurrera gertatutakoa bakoitzak jakingo du.



Mintzo panpina gomaespumaz





# EUSKAL HERRI OSOAN, ESKOLAK EUSKALDUNTZEA HELBURU!

**Otsailaren 10ean ekin genion euskaigintzako eta hezkuntza arloko hamabost eragile desberdinek (AEK, Kontseilua, IKA, EHE, LAB, IA, Ikastolen Federazioa, EHBE, Topagunea, Ikas, Sortzen.) eskolak euskalduntzearen aldeko sinadura bilketa erraldoiari.**

Tamaina horretako ekimen batek behar zehatz eta larri bati erantzun nahi dio. Euskara ezagutzea euskal herritar ororen eskubidea izanik, eskola dugu eskubide hura bermatzeko tresna nagusia. Baina egungo hizkuntza ereduen sistemak (A, B, D, G eta X ereduak) milaka eta milaka euskal herritarri ukatu egiten die euskararen ezagutza eta lekuan lekuko administrazioak ere beste ikasle askori euskaraz ikasteko eskubidea ukatu egiten die. Gauzak horrela, datuek berez erakusten digute egoeraren larritasunaren tamaina



Bilbon egindako sinaduraren bilketa

norainokoa den, izan ere Euskal Herri osoan egun ikasten ari diren 10 gaztetatik 3ri besterik ez zaio bermatuko euskararen ezagutza. Euskal Ikasleen %45ek frantsesez edo gazteleraz ikasten du; %38k besterik ez du ikastaro osoa euskaraz jasotzen.

Egoera iraultzeko herritarren eskaera sinaduren bitartez jaso nahi dugu, Euskal Herriko

esparru administratibo desberdinetan hezkuntza kudeatzen duten instituzio guztiak presionatzeko asmoz. Dagoeneko kanpainak 25.000 herritarren babesa jaso du (euskaldundutako irakasleak, hezkuntza sistemak kaltetutako herritarrak, euskaldundutako etorkinak, herritar anonimo zein ezagunak.) eta zuk konpartsakide sinatu al duzu?



# MAHATSERRI KO BERBALAGUNA KONPARTSATI K GERO ETA HURBI LAGO

**Jakingo duzuenek konpartsakide batzuek berbalagun proiektuan parte hartzen dute, horri esker**

**batzuk dira konpartsara hurbildu diren berbalagunak... KOITTADUAK!!!**



Berbalagun talde bat Txurdinagako taberna batean

Berbalagun taldekideok ordu bat euskaraz hitz egiteko astean behin lotzen gara, hauxe aukera paregabea da euskaraz hitz egiteko aukera eskasak ditugunontzat edo ikasten ari garenontzat.

Batzuek astean zehar z i n t z o - z i n t z o Txurdinagako taberna bat okupatzen dugu zeozer hartzeko elkarri bizitza kontatzen diogun bitartean. Beste batzuek, Somerako tabernak bisitatzen dituzte ostiral arratsaldeetan. Hauxe irakurrita EH-ko kirolrik ezagunena (hau

da, poteoa) baino ez dugula egiten pentsatuko duzue... ba, erratuta zaudete!

B e r b a l a g u n e k o antolatzaileek hilabetero bidaltzen diguten euskararekin lotutako ekitaldien agendaren bitartez jendea euskaldun giroan sartzen animatzen dute, mendirako irteerak eta ibilaldiak ere besteak beste antolatzen dituzte, adibidez, martxoan sagardotegi batean bazkaldu baino lehen kostaldetik paseotxo bat egin zuten itsasontzi

batean edo "Candanchu"-n asteburu bat mendia zein eskia egiteko aukerekin antolatu dute, ea noiz animatzen garen geu ere parte hartzen!

Berbalagun batzuk ikusi ahal izan ditugu konpartsako azkenengo geraldietan, adibidez, inauterietan gure ile grisadun andereñoa Alvaro izan zen, berbalagun kidea eta konpartsakidea, egoitzan bertan kamiseta jantzi genion eta, ongi etorria!

Apirilaren 2an Santurtzin Hizkuntza Eskubideen Egunean ere, berbalagunak eta konpartsa elkarrekin agertu ziren, baina, honetan ia ia berbalagun baino konpartsakide gehiago egon ziren (Ander, Karlos, Alvaro eta Alex adibidez), ai ai ai zelan gabiltzan! ea gehiago animatzen garen eh!!! Ba egon ez zinetenok oso egun polita galdu zenuten, batzuek lan handia egin zuten besteok disfrutatzeko eta jaialdi ederra prestatu zuten, zorionak EHEkoei!



Kanpik jaso zuen Bai Euskarari Ziurtagiria

## HAU PITTU HAU BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN URTEKO EKITALDIAN

Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiriaren ekitaldi nagusia Donostiako Kursaal aretoan egin zuen Bai Euskarari Ziurtagiria lortu duten 1190 enpresa, saltoki eta bestelako entitateen lana publikoki aitortzeko. Kontseiluko zuzendaritzakideek ziurtagiria lortu dutenei Nestor Basterretxearen

artelana oparitu zieten.

Kanpi eta Peru Hau Pittu Hau-ri zegokion oparia jasotzen joan ziren Kontseiluak antolatu zuen ekitaldira. Ziurtagiria jaso ondoren, Euskal Herriko gastronomia berria dastatzeko ere aukera izan zuten Kanpi eta Peruk, nahiz eta zer jan zuten ondo ez jakin.



## DEIALDIAK

### Apirilaren 1ean:

\* Esaera Zaharren Txapelketa (Sopelan)

### Apirilaren 2an:

\* Hizkuntz Eskubideen Eguna (Santurtzin)

### Apirilaren 7an:

\* Txotxindau (Indautxuko Euskaltegia)

### Maiatzaren 6an:

\* Hau Pittu Hau-ren Eguna

### Maiatzaren 8an:

\* Herri Urrats (Senperen)

### Maiatzaren 21ean:

\* Euskal Eskola Publikoaren jaiak (Iruñan)

### Maiatzaren 28an:

\* Ibilaldia (Elorrion)

### Ekainaren 18an:

\* Araba Euskaraz (Armentian)

### Uztailaren 15an:

\* Konpartsen Eguna

